

## **ITZULPENA<sup>1</sup>**

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN GOMENDIOA 2006ko otsailaren 15ekoa goi-mailako irakaskuntzaren kalitatearen bermean europar lankidetzari handiagoa izateari buruzkoa (2006/143/EE)

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP/HAEE) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren (IZO) bidez, Zerbitzu honek itzulpenari dagokion egiaztagiria emanez.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: RECOMENDACIÓN DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 15 de febrero de 2006 sobre una mayor cooperación europea en la garantía de la calidad de la enseñanza superior (2006/143/CE) (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 64 de 4/3/2006)

## II

(Aplikatu ahal izateko, argitaratu beharrik ez duten egintzak)

# EUROPAKO PARLAMENTUA ETA KONTSEILUA

## EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN GOMENDIOA

**2006ko otsailaren 15koa,**

**goi-mailako irakaskuntzaren kalitatearen bermean europar lankidetzari handiagoa izateari buruzkoa**

(2006/143/EE)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR  
BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europar Batasuna eratzen duen Ituna, eta, bereziki,  
haren 149. artikulua 4. paragrafoa, eta haren 150.  
artikulua 4. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldearen irizpena  
aztertu dute <sup>1</sup>,

Kontsulta egin diote alde aurretik Eskualdeetako  
Lantaldeari,

Itunaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki  
<sup>2</sup>,

Honako hauek kontuan hartuta:

---

<sup>1</sup> EO C 255, 2005.10.14koa, 72. or.

<sup>2</sup> Europako Parlamentuaren irizpena, 2005eko urriaren 13koa  
(Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea) eta Kontseiluaren

(1) Kontseiluaren 98/561/EE Gomendioaren —1998ko irailaren 24koa da, goi-mailako irakaskuntzaren kalitatea bermatzeko europar lankidetzari buruzkoa <sup>1</sup>— arrakasta handia izan bada ere, eta horren erakusgarri dugu 2004ko irailaren 30eko Batzordea, beharrezkoa da oraindik ere Europako goi-mailako irakaskuntzaren eraginkortasuna hobetzea, batez ere haren kalitateari dagokionez, gardenagoa izan dadin eta europar herritarren eta beste kontinenteetako ikasle unibertsitario eta akademikoen konfiantza irabaz dezan.

(2) 98/561/EE Gomendioak kalitatearen bermeko sistema gardenak bultzatzea eta, hala badagokio, sortzea premiatu zuen. Estatu kide gehienek bermeko sistema nazionalak ezarri dituzte eta kalitatea edo egiaztatzea bermatzeko agentzia bat edo gehiago sortzeari ekin diote edo baimendu dute.

(3) 98/561/EE Gomendioak kalitatearen berme-

---

Erabakia, 2006ko urtarrilaren 30koa.

sistemak funtsezko ezaugarri jakin batzuk izan beharra finkatu zuen, eta horien artean daude programak edo erakundeak ebaluatzea barne-ebaluazio baten eta kanpo-berrikuste baten bidez, betiere horietan ikasleek parte hartzen dutela, emaitzak argitaratzearen bidez eta nazioarteko parte-hartzearen bidez. Kalitatearen bermearen ebaluazioen emaitzek zeregin garrantzitsua dute goi-mailako erakundeen eraginkortasuna hobetzeko laguntzari dagokionez.

(4) 3. kontuan hartuzkoak aipatzen dituen funtsezko ezaugarriak kalitatearen berme-sistema guztietan aplikatu dira, oro har, eta Europako Hezkuntza Ministerioek berretsi dituzte, 2003ko irailean Berlinen bildurik, Boloniako prozesuaren inguruan, goi-mailako europar esparrua gauzatzeko aukera bultzatze aldera.

(5) Goi-mailako irakaskuntzan kalitatearen bermerako europar elkarteak (ENQA), 2000. urtean ezarritakoak, kalitatea bermatzeko edo egiaztatzeko gero eta erakunde gehiago ditu bere kideen artean, Estatu kide guztietakoak.

(6) Boloniako prozesuaren testuinguruan, 45 herrialdetako Hezkuntza Ministroek goi-mailako irakaskuntzaren europar esparruko kalitatearen bermeari buruzko arau eta norabideak onartu zituzten, 2005eko maiatzaren 19an eta 20an Bergenen eginiko bileran ENQAk proposatu bezala, L 64/60 ES Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala 4.3 ondorioen ildotik. Era berean, ebaluazio nazional batean oinarrituriko kalitatearen berme-agentzien europar Erregistro bat sortzearen printzipioaren alde agertu ziren, eta ENQAk aplikazioaren alderdi praktikoak garatzea eskatu zuten, Unibertsitateen Europako Elkartearen (EUA), Goi-mailako Irakaskuntzako Erakundeen Europako Elkartearen (EURASHE) eta Europako Ikasleen Elkarte Nazionalen laguntzarekin, eta Ministroei txosten bat igortzea, Boloniako jarraipen-taldearen bidez. Bestalde, nazio osoan ezagumendua duten agentzien arteko lankidetzaren

garrantzia azpimarratu zuten, kalitatea egiaztatzeari edo bermatzeari buruzko erabakien elkar ezagumendua indartze aldera.

(7) Kalitatearen bermea indartzeko EBren ekimenak Boloniako prozesuaren testuinguruan garaturiko jardueren arabera garatu behar dira.

(8) Europar aritzen diren kalitatearen berme-agentzia independente eta fidagarrien erregistroa lantzea komeni da — eskualdekoak edo nazionalak, orokorrak edo espezializatuak, publikoak edo pribatuak— goi-mailako irakaskuntzan gardentasuna indartzeko eta beste herrialdeetako kualifikazioen eta ikastaldien ezagumendua bultzatzeko.

(9) Lisboako Estrategiaren testuinguruan, Europako Kontseiluak, 2002ko martxoan Bartzelonan bilduta, ondoriotatu zen europar hezkuntza eta prestakuntza-sistemak «mundu mailako kalitatearen erreferentzia» bihurtu behar direla.

ESTATU KIDEEK HONAKO HAU GOMENDATZEN DUTE:

1 beren lurraldean diharduten goi-mailako irakaskuntzako erakunde guztiei eskatzea kalitatearen bermeko barne-sistema zorrotzak sartzeko edo garatzeko, Boloniako prozesuaren testuinguruan Bergenen onarturiko goi-mailako irakaskuntzaren europar Esparruko kalitatearen berme-alorreko arau eta norabideei jarraiki.

2 beren lurraldean diharduten kalitatea bermatzeko edo egiaztatzeko erakunde guztiei eskatzea beren ebaluazioetan independenteak izatea, eta praktikan jar ditzatela 98/561/EE Gomendioan ezarritako kalitatearen bermearen ezaugarriak, eta Bergenen onarturiko arau eta norabide erkideak aplikatu ditzatela, ebaluazioari begira. Goi-mailako sektoreko ordezkarien laguntzarekin landu behar dira arau horiek, eta aniztasuna eta berrikuntza babestu eta sustatzeko moduan aplikatu behar dira;

3 agintaritza nazionalen, goi-mailako irakaskuntzaren

<sup>1</sup> EO L 270, 1998.10.7koa, 56. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

sektorearen, eta kalitatea edo egiaztatzea bermatzeko agentzien ordezkariari eskatzea, gizarte-hizketakideekin batera, «Kalitatea bermatzeko agentzien europar erregistro» bat («Europar erregistroa») ezar dezaten, ebaluazio nazional batean oinarritu eta eranskinean ezarritako printzipioak kontuan izango dituen, eta erregistratzeko eskakizunak eta Erregistroaren kudeaketa-arauak defini ditzaten;

4 beren lurraldean diharduten goi-mailako irakaskuntza-erakundeei ahalbidetzea aukera dezatela europar Erregistroaren kalitatea edo egiaztatzea bermatzeko agentzien artean beren premietara eta profilerara hobekien egokitzen dena, betiere hori bateragarria bada legeria nazionalarekin, edo agintari nazionalak baimentzen badute;

5 goi-mailako irakaskuntza-erakundeei ahalbidetzea beste ebaluazio osagarri bat lortzea europar Erregistroaren beste agentzia baten eskutik, nazioartean duen entzutea sendotze aldera, esate baterako;

6 agentzien arteko lankidetzaren sustatzea elkarren arteko konfiantza eta kalitatea egiaztatzeari eta bermatzeari buruzko ebaluazioen ezagumendua sendotze aldera, kualifikazioen ezagumendua bultzatuz beste herrialde batean ikasteari edo lan egiteari begira;

7 europar Erregistroan bilduta dauden kalitatea edo

egiaztatzea bermatzeko agentziek eginiko ebaluazioak jendeak balia ditzala bermatzea.

HONAKO HAU ESKATZEN DIOTE BATZORDEARI:

1 bultzatzen jarraitzea, Estatu kideen laguntza estuarekin, goi-mailako irakaskuntza-erakundeen, kalitatea edo egiaztatzea bermatzeko agentzien, agintaritza eskudunen eta esparru horretan diharduten bestelako erakundeen arteko lankidetzaren;

2 hiru urteko txostenak aurkeztea Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari Estatu kideetan kalitatea bermatzeko sistemen garapenean izandako aurrerabideei buruz, baita Europa osoko lankidetzaren jarduerari buruz ere, lehen adierazitako helburuen inguruan lorturiko aurrerapausoak barne.

Estrasburgon eginga, 2006ko otsailaren 15ean.

Europako Parlamentuaren izenean,  
Presidentea  
J. BORRELL FONTELLES

Kontseiluaren izenean,  
Presidentea  
H. WINKLER

ERANSKINA

**«Kalitatea bermatzeko agentzien europar erregistroa»**

Agentzia fidagarrien zerrenda eskaini behar du Erregistroak; haien ebaluazioek Estatu kideen konfiantza merezi behar dute (eta horien agintari publikoena) eta honako funtsezko printzipio hauetan oinarritu behar da:

1) agintari nazionalen, goi-mailako irakaskuntzaren esparruaren (goi-mailako irakaskuntza-erakundeak, ikasleak, irakasleak eta ikertzaileak) eta Estatu kideetan diharduten kalitatea bermatzeko edo ziurtatzeko agentzien ordezkariak arduratu behar dira agentzien zerrendak lantzeaz, gizarte-hizketakideekin batera;

2) honako hauek ager daitezke agentzien erregistro-eskakizunen artean, besteak beste:

i) ebaluazioetan erabateko independentzia izateko konpromisoa;

ii) gutxienez bertan jardunean aritzen diren Estatu kidearen ezagumendua (edo Estatu kide horretako agintari publikoena);

iii) Estatu kideei zuzendutako 1. eta 2. gomendioetan aipaturiko arau eta norabide erkideen multzoan oinarrituko funtzionamendua;

iv) erakunde homologoek edo bestelako adituek aldizka eginiko kanpo-berrikustea, horretan aplikaturiko irizpide eta metodoak argitaratuta, baita emaitzak ere;

3) erregistroa ukatuz gero, beste ebaluazio bat egin liteke lorturiko hobekuntzen oinarriaren gainean.